




MATRIKULAZIOA: Urtarrilak 27-Otsailak 7



86. alea

2020-01-31

Ategorrietaren eraispena datorren astean hasiko da

Udaletxearen aldetik azken baimenak jaso berri, datorren astean hasiko dira Villa Sacramentoko eraispen lanak. Hori dela eta, Ategorrietako psikomotrizitate gelan gordeta zeuden hainbat altzari Hurrara ekarri behar dira. Azken elementu hauek auzolanean ekartzen laguntzeko, guraso ordezkariak zuekin jarriko dira harremanetan. Animatu eta laguntza eman!



Hemen konpontzaileak!

Goizean Soroan aritu eta gero, gaur arratsaldean aurtengo Kaldereroen konpartsa kaleratuko du ikastolak. Soroako txikienek zartagin eta panderoak gogoz jo dituzte eta dantzan ere bikain aritu dira.



LHkoak kaldererotako entsegutan

Hungariako kaldereroak datoz eta gu behintzat ez gaituzte ezustean harrapatuko. Azken asteotan ederki entseatu dira gure ikasleok!



LH3koak "Coll hitzik gabe" erakusketan

Ostiral goizean Okendo kultur etxean izan ziren LH3ko lagunak "Coll hitzik gabe" erakusketa ikusten. Bertan Koldo Mitxelenaren komiki lehiaketarako ideia mundialak hartu zituzten.



Antzerki eskolako estreinaldi berria

Datorren ostegunean, otsailak 6, Zurriola Antzerki Eskolak bere azken muntaia taulartuko dut Gazteszenan 20:00etan. "UBU errege" da Joserra Fachadok zuzendu eta Ainara Mendiolak itzulitako obra. [Sinopsia](#).



2020/21 MATRIKULAZIO EPEA ZABALIKI!
HH, LH ETA DBH

Matrikula berrien epea datorren ostiralean amaituko da. Informazio gehiago [bertan](#).

OHARRAK / AGENDA:

- **HH2-3:** Kaldereroak. [Soroa](#).
- **HH4-LH6:** Kaldereroak. [Gros/Manteo](#).
- **LH2:** Eureka Zientzia Museoa. Egun pasa. Bazkaria ekarri. Otsailak 5.
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Otsailak 10-13. Zirkularra datorren astean.
- **DBH1:** Heziketa afektibo sexuala. Formakuntza. Otsailak 6-7.
- **Jangela:** Otsaileko [menua](#).
- **Eskola Kirola:** 11. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Musika eta Dantza Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 4. [Deialdia](#).
- **Kirol Elkarte:** Urteko Batzarra. Otsailak 14. [Zirkularra](#).
- **Antzerki Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 17. [Zirkularra](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Urtarrilak 31 - Otsailak 2](#).
- **Grosetako Haurtxokoa & Gaztelekua:** Otsaileko [programazioa](#). [Ekintza](#) bereziak.



ikastola
 etorkizunerantz
 hezkuntza
 eraldatzen

